## LAN, OSASUNKETA ETA GIZARTESEGURANTZA-SAILA

1509

Uztailaren 16ko 220/1985 DEKRETOA, Euskadiko Koperatiben Kontseilu Nagusiko Lehendakariari agintepide berriak emanez.

Euskadiko Koperatiben Kontseilu Nagusia araupetzen duen Azaroaren 15eko 207/1982 Dekretoak, bere 10 atalean, Kontseiluko Lehendakariari aitortzen dio beste egitekoen artean, Kontseilu horren ohorezko ordezkotza edukitzea. «Euskadiren Ondarea» deituari buruzko Uztailaren 27ko 14/1983 Legean eta «Euskal Herriko Herriogasuntza Nagusiaren Antolarauak» deituari buruzko Ekainaren 20ko 12/1983 Legean bereziki jartzen diren aginte-aldiak bete ahal izateko eta ordezkotza hori arduralaritza akurapena, ogasun mugikorrak diru-trukez norberetzakotzea, ogasun mugikorren zuzkiketa eta, orohar, gainontzekoen aurrean eraginak sortarazi ditzan beste ezein ekintza egin ahal izateko aski ez denez gero, bidezko gertatzen da Euskadiko Koperatiben Kontseilu Nagusia araupetzen duen Azaroaren 15eko 207/1982 Dekreto horretan jartzen dena eraldatzea.

Hori dela eta, Lan, Osasunketa eta Gizartesegurantza-Sailburuaren saloz, «Euskal Herriko Herriogasuntza Nagusiaren Antolarauak» deituari buruzko Ekainaren 20ko 12/1983 Legeko 17. atalean aitortutako agintepideaz baliatuz, Euskadiko Koperatiben Kontseilu Nagusiak 1985.eko Uztailaren 9an egindako Osoko Bilkuran emandako aldezko erizpena jaso eta Eusko Jaurlaritzak 1985.eko Uztailaren 10ean egindako bilkuran aztertu ondoren, zera

ERABAKITZEN DUT:

*1. Atala.*- Euskadiko Koperatiben Kontseiluko Lehendakariak, Kontseilu horren legezko ordezkotza izango du, Legean ohartematen diren ekintzak eta bere diruegitamukoak egiteratzeko.

AZKEN ERABAKIA

Dekreto hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara dadineko egunean jarriko da indarrean.

Gasteizen, 1985.eko Uztailak 16.

Lehendakaria,
JOSE ANTONIO ARDANZA GARRO.

Lan, Osasunketa eta
Gizartesegurantza-Sailburua,
JON IMANOL AZUA MENDIA.

## DEPARTAMENTO DE TRABAJO, SANIDAD Y SEGURIDAD SOCIAL

1509

DECRETO 220/1985, de 16 de Julio, por el que se atribuyen nuevas funciones al Presidente del Consejo Superior de Cooperativas de Euskadi.

El Decreto 207/1982, de 15 de Noviembre, por el que se regula el Consejo Superior de Cooperativas de Euskadi, en su artículo 10º atribuye al Presidente del Consejo, entre otras funciones, la representación honorífica del mismo. Como quiera que el carácter de dicha representación no es suficiente a efectos de cumplimentar los mandatos contenidos fundamentalmente en la Ley 14/1983, de 27 de Julio, de Patrimonio de Euskadi y en la Ley 12/ 1983, de 20 de Junio, reguladora de los Principios Ordenadores de la Hacienda General de País Vasco, en relación a la posibilidad de contratación administrativa, adquisición a título oneroso de bienes muebles, suministro de bienes muebles y en general cualesquiera otros actos que produzcan efectos frente a terceras personas, procede modificar el contenido material del antecitado Decreto 207/1982, de 15 de Noviembre, por el que se regula el Consejo Superior de Cooperativas de Euskadi.

En su virtud y a propuesta del Consejero Titular del Departamento de Trabajo, Sanidad y Seguridad Social, previo informe favorable del Pleno del Consejo Superior de Cooperativas de Euskadi, en su Sesión de fecha 9 de Julio de 1985, en uso de la facultad reconocida por el artículo 17 de la Ley 12/1983, de 20 de Junio, de Principios Ordenadores de la Hacienda General del País Vasco, y previa deliberación del Consejo de Gobierno Vasco en su sesión de 18 de Julio de 1985.

DISPONGO:

*Artículo 1.*- Corresponderá al Presidente del Consejo Superior de Cooperativas de Euskadi la representación local del mismo para la realización de los actos previstos en la Ley, incluídos los de ejecución de su propio presupuesto.

DISPOSICION FINAL

El presente Decreto entrará en vigor el día de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 16 de Julio de 1985.

El Presidente,
JOSE ANTONIO ARDANZA GARRO.

El Consejero Titular del Departamento de Trabajo, Sanidad y Seguridad Social,
JON IMANOL AZUA MENDIA.